

Euskal Herriko Ahotsak  
ahotsak.com

*Altzo*

Aurkibidea

# Udalerria: Altzo

## Sarrera



Tolosaldea eskualdean kokatuta dagoen herria da. Bi auzo nagusitan banatzen da herria. Alde batetik, Altzo Azpi, gunerik zaharrena da, baina gaur egun baita txikiena eta biztanle gutxien daukana ere, eta Oriako ibarrean kokatuta dago. Bestetik Altzo Muño dago, herriko goialdean eta Oria eta Araxes ibaien artean kokatua, bertan bizi da biztanle gehien eta udaletxea ere auzo honetan dago. Iparraldean Tolosa eta Leaburu, hegoaldean Tolosa berriz ere, ekialdean Lizartza eta mendebaldean Alegia udalerriak mugakide ditu. Euskal hiztunen portzentaje esanguratsua dela-eta UEMAko (Udalerrri Euskaldunen Mankomunitatea) kidea da.

- **Biztanleak:** 405
- **Euskaldunak:** %94,9

## Ahotsak.eus-eko datu orokorrak

- Hizlariak: **18**
- Zintak: **31**
- Pasarteak: **86**
- Transkribatutakoak: **2**
- Audioak: **0**
- Bideoak: **77**

## Proiektuak

- Altzoko Kultur Batzordea
- Euskal Herriko Ahotsak

## Hizlariak

### **Joxe Mari Agirre Gaztañaga (1928)**



Altzoko Jauregi baserrian jaioa. Aita Jauregi bertakoa zuen, eta ama, berriz, Goikoetxekoa. Jauregitik hurbilago gelditzen zenez Altzoko fraide-etxea, eliza baino, gehienetan fraide-etxean bertan entzuten zuten meza. Gau eskola jasotzera ere fraideengana joan zen Joxe Mari, haiek borondatea baizik ez baitzuten eskatzen. Denbora libreak, txori-habia bila ibiltzeko afizio handia izan zuen umetan eta zaletasun horri buruzko kontuak kontatu dizkigu.

### **Migel Amiano**

### **Joxe Amiano Luloaga (1930)**

Bordaberri baserria 1930. urtean sortua.

### **Joxe Anjel Galarraga Barriola (1926-2003)**

### **Joxepa Gorostidi Luloaga (1926)**



Altzoko Goikoetxe baserrian jaioa. Aita Amezketatik umea zela joan zen bizitzera ondoren Joxeparen jaiotetxea izango zenera. Ama, berriz, Altzoko Bordaberri baserrikoa zuen. Berak zortzi urte zituela hil zitzairen aita. Hogeita bi urterekin josten ikasten hasi zen. Hiru urte eman zituen Alegiako jostun batekin trebatzen. Ondoren, Altzo bertako Berakoetxea baserrira ezkondu zen.

### **ALO-030 Hizlari ezezaguna**

### **Joxe Irure Eizmendi (1924)**

### **Bittori Lasa Jauregi**

### **Angela Lizarribar**

## Frantzisko Lizarribar

### Maixa Lizarribar Saizar (1971)



Altzon jaioa, gurasoak ere bertakoak zituen. Ume-umetatik nahi izan zuen trikitia jotzen ikastea. Villabonan hasi zen ikasten, eta 16 urte zituenerako trikiti-klaseak ematen ari zen, gero ogibide izan duena. 17 urterekin Euskal Herriko Trikiti Finalera iritsi zen, Ixiar Orejarekin batera, eta handik gutxira plazaz plaza hasi ziren biak: [Maixa eta Ixiar](#). Hamaika urtean jo zuten elkarrekin, eta lau disko kaleratu zituzten. Etenaldi luze baten ostean, 2019an lau emakume trikitilarik [AMAK taldea](#) sortu zuten. Emakumeak, musikagintza eta trikitia izan ditugu hizpide elkarriketan.

### Antonio Luluaga Arruabarrena (1921)

#### Mahai-ingurua Altzon



Joxepa Jauregi Portu. 1933-03-19 Arzadun baserria; [Joxepa Gorostidi Luloaga](#), 1926-08-10 Berakoetxea baserria; Juanita Luloaga Arruabarrena, 1934-11-24 Etxeberri baserria; [Jose Mari Agirre Gaztañaga](#), 1928-10-01 Jauregi baserria; [Joxe Amiano Luloaga](#), 1930-03-31 Bordaberri baserria.

### Migel Murua Mendizabal (1928)



Aizarnazabalgo Errotan jaio bazen ere, hamasei hilabete bete berritan joan zen bere familia Altzora bizitzera, Otsegi baserrira. Ama Goiatzekoa zuen, eta aita, berriz, zarauztarra. Hamaika senidetan seigarrena zen Migel. Baserriko lanetan gustukoenetako bat itzain aritzea zuen. Gaztea zela Altzoko gainontzeko baserrietan idirik ez zen, eta beraienean bi pare, ondorioz, etxez etxe ere ibili zen, itzain. Altzoko festetan laurogei duro ere irabazi zituen apustu batean. Ondoren, Becker Bujack lantegian hasi zen lanean Alegin.

### Mari Karmen Unsain

### **Inaxio Zabala Goikoetxea (1921-2015)**



Altzoazpi auzoko Olazabal baserrian jaioa. Aita Abaltzisketakoa zuen, eta ama, berriz jaiotetxe berekoa. Eskolan Alegian ikasi zuen. Ondoren, apaiza etxean izan zuten urte askoan, eta berarekin garatu zuen bere jakinmina eta ikasteko gogoia. Hamabost urte zituela, ordea, gerra hasi zen, eta osaba kartzelara eraman zieten. Ollaunen zeuden soldadu errepublikazaleei bazkaria eramatea ere egokitu zitzaion. Gerora, Altzoko alkate egin zen, eta hogeita hiru urtez eutsi zion karguari.

### **Valeriana Zabala Goikoetxea (1925-2012)**



Altzo Azpiko Olazabalberri baserrian jaioa, sei senidetan laugarrena da Valeriana. Zazpi urte bete zituenetik hamabi bete zituen arte, Alegiako seroren komentuan ikasi zuen. Ondoren, Tolosako Cielo Grandera joan zen neskame, hamar ume zaintzera han hamahiru bat urte pasatu zituen. Gerora, Alegiara ezkondu zen, eta han bizi izan da geroztik.

### **Joxe Mari Zubeldia**

## **Pasarteak gaika**

Herri honetan landu eta transkribatu diren pasarteak, gaika antolatuta.

### **1. Familia eta harremanak**

#### **1.1. Tximista, harria... istripuak eta konjuruak**

- **Hizlaria(k):** Agirre Gaztañaga, Joxe Mari
- **Elkarrizketatzailea(k):** Artetxe, Miren
- **Erref:** ALO-003/044
- **Iraupena:** 0:02:50. **Hasi:** 01:03:19. **Bukatu:** 01:06:09
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai
- **Gaia(k):**  
Familia eta harremanak » Herriko giroa » Auzokoen arteko harremana  
Natura » Meteorologia
- **Laburpena:** Tximisten ondoriozko istripuak. Elizak omen zuen, Altzon, tximistorratza. Apaizak konjuruak egiten omen zituen ekaitza Altzotik ez pasatzeko. Baserriak ere gehiago erretzen ziren lehenago. Orduan, etxez etxe limosna eskatzen zuten etxejabeek.

#### **Transkripzioa**

- Baiño gehixe izaten zian ordun e. Ordun pararraioik eta hoik'e... ez, oain bezela jarri [barek] eta izaten zin, bai. Oiñ'e iñoiz izaten da e, baiño oaiñ gutxi e. Uain dan etxe pillakin eta... uain gutxi izaten da. Uain pararraioikin ta hoikin uste det asko...

- Lehenoz ez zan pararraioik?

- Ez. Lehen... elizen, elizen zan pararraioa, gaiñantzen nik ez nun iñun ikusi. Oain bai, oain, oain obra itten duenen /itteuenen/ danak jartzen due / jartzeue/.

- Ta, ordun, tximistakin ta erretako etxe gehiyo-ta izaten zan?

- Etxe erre ordun, oain baiño baserrik-eta gehio erretzen zien. Nola erretzen zien? ez dakit. Batek igual esango zizun e, Mutilon etxe bat erretzen balin bazan ta: "Beak igual emango zion", ta bestek "Eman zio, beak eman zio" eta gauzek hola ´re izango zien. Ta bestaldea ´re, berriz, argindarrak´e badakizu nolakok zien, alanbre gorri-gorrik hor zean, etxen, ta kable ahulek eta, su hartu arazteko aiña igual ta, belarran ondón igual ta... Ez dakit. Ordun behintzat etxe erren esken jende ikeagarri ibiltzen zan. Asko, e! Asko.

- Ze izaten zan, auzoko guztiei eskatzen zitzaien?

- Limosna, limosna etxez etxe. Limosna izaten zan, nahi zunak nahi zuna eman, o ahal zuna o...

- Ta tximista zanen Santa Barbarai eo ez zitzaion eskatzen babesteko o...?

- Ordun tximista ta egualdi txarra zetorrenen, o mendi aldetiken eo egualdi itsusi zeon garaien, "Ba, harrie botako dik. Tankera txarra zeukek egualdik eta [...] apaiza hasi ote da konjuroa itten?" ta hola. Ta holako baten igual apaize zeak jantzita zean, zimitaion, bere zeakin. Ta "Ez dik hemen in, Adarra aldetik pasa dek. Adarra aldetik pasa ezkeo ondo! Hau salbatu diagu /salbatuiu/ ta". Han... han harrapatutakok inportik ez. Beno, hoi nik esaten det, e!

- Ai, ai, ai. Konjurok iten zitun ordun apaizak?

- Bai, bai, bai, bai. Ta ordun konjuro horrena ´re pagatu iten zan, e! Konjuro garie eo ez dakit, zerbaitte izaten zan urtero pagatu beharra. Bai. Oain ahaztuta nao ni kontu hoik baiño... babarruna uste det izaten zala, garie´re bai, ta... holoko gauzek. Diruik ez zan ta garikin eo ahal zanakin.

## 2. Euskara

### 2.1. Altzoko euskara eta inguruko euskarak

- **Hizlaria(k)**: Agirre Gaztañaga, Joxe Mari
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Artetxe, Miren
- **Erref**: ALO-003/045
- **Iraupena**: 0:04:30. **Hasi**: 01:06:09. **Bukatu**: 01:10:39
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai
- **Gaia(k)**:  
Euskara » Euskalkia, herri hizkerak, euskara batua
- **Laburpena**: Euskara ezberdinak. Altzo/Alegi/Amezketeta/Txarama/  
Lizartza ezberdintasun gehiago lehen orain baino.

### Transkripzioa

- Ba uain bai azkeneko galdera ingo dizutena, ya nahikua iñarazi dizut eta. Aurrekuan esan genun, baiño euskera Altzotik Alegia diferente iten da?

- Bai. Ta oain, gaiña, zeoze-zeoze akaso, baiño oain, gaiña, gutxigo; oain, gaiña, ia ez da notatuko. Amezketeta´re bai, notatu itten da /ittea/, ta Txarama ta hoota´re bai. Lizartzak´e badu bere napar kutsue eo, Lizartzak ´e badu pixkat. Igualtsogo... Ikaztegieta beste bat honen... honen tankera egongo da. Baliarrain´e dao... Ikaztegieta honea baiño bide gutxigo Baliarraiña, ta Baliarrain da goikoa dana, goi-aldeko euskera.

- Ta hemendik ze diferentzi... nola antzematen diyozu ba bati amezketarra dala ta ez Altzokua?

- Ba bai, bere dehea izaten du /izateu/, e.

- Hitz klasen?

- Bai, bai, bai, bai. Bedaiokok'e bai ta Amezketakok'e bai. Amezketakoa ai balin bada denboa askon kontutan... Oso gutxi antzematen nizun zuri e, nungoa izango zeanik, oso gutxi! Baiño Amezketakoa balin badao ordu laurden baten gukin balin badao, nik antzemango diot Amezketakoa dala, Amezketa o... horkoa dala.

- Abaltzisketa o...?

- Bai, bai, bai.

- Ta zertan atzemango diozu o? tonun igual, hola, doiñun bezela o...?

- Bai.

- Hitz diferentek ibiltzen dituelako o...?

- Konparazio, baso bat hausi du, o eroitzen zaio baso bat eta "A! basoa hausi dik" ta hola. Ta guk "Basoa hausi dik", hola, zeago, motzago, baiña haik zeago, tirada luzegon o ez dakit ba nola esan. Bai, bai.

- Ta Tolosa aldea, adibidez, Txarama aldea, ze diferentzi?

- Txarama aldea, Tolosan estiloa o. Txarama erdie kastillanoa zan e guk ezautu gendun garaien.

- Bai, e?

- Kanpotik etorritako jendea. Hor euskeraz ez zekin asko zan. Oain euskeraz danak jakingo due, baiño ordun... Ta Leaburu're Tolosakin bertan eoteko Leaburuk'e ez du hortaiñoiko diferentziik Altzokin. Esango nuke Tolosakin baiño hobeto igual zeatuko litzakela.

- Badu bere hizkera propioa ere ordun, ez da Tolosa bezelakoa.

- Zenek, Leaburuk?

- Leaburuk.

- Leaburu ez, Leaburu nik ez nuke zeatuko. Ibarra bai, Ibarra ta Tolosa igual-igualtsu die. Ta Urkizu ta hoik'e... hoik'e been zea badue, hoik'e Tolosako hizketa due. "Gue mutilla" ta "gue semia" ta... dana; guk "semea" esaten deu, "gue mutille" ta... diferentek die

- Ta hemen Altzo goiko aldetik beheko aldea're badao diferentziya o ya ez?

- Ez! ez, ez, ez, ez. Ez.

- Esaten due ba Tolosaldeko hizkera o Tolosakoa dala garbina ta earrena ta...

- Bai. Igual e, igual. Gu soldau eon giñen denboa asko, ia milla ta bostehun bat soldau eon giñen zean, Baztanen, Zugarramurdi ta, zea, frontera hortan. Ta han... hango hizketa gaiztoa dik zeatzen e, entenitzen. Zuk jakingo dezu! Ta... guri, nei esaten zien, bizkaitar asko, ta hemen Azkoiti ta Azpeiti, euskaldun ikeragarrik. Ta nei esaten zien, nei ta hemengo esaten ziguen, ba, gurea ondo entenitzen zuela; haiña ez, haikin ibiltzen zien gaizki. Bizkaitarrak gaizki ibiltzen zien beakin, ba, beak'e bai bizkaitarrakin. Ta guri esaten ziguen guri ondo ulertzen ziguela. Gu, berriz, haikin nahiko lan ibiltzen giñen. Baztangoa bea're ez da zea, euskera oso errex hoitakoa ez da. Gu Errazun ta Amaian ta hoitan asko ibili giñen.

## Transkripziorik gabeko pasarteak

Ondorengo pasarteak gaika landuta eta kodifikatuta daude, baina oraindik transkribatu gabe.

## **1. Fraide-etxeko mezak (ALO-003/006)**

Fraide-etxean hiru meza izaten ziren. Baserritarrak, hala, ondoen zetorkienera joaten ziren. Txarama aldetik eta Altzoko auzo batzuetatik joaten zen jendea Fraide-etxera meza entzutera.

## **2. Fraideak herrian (ALO-003/009)**

Apaizek beldur gehiago ematen zuten fraideek baino. Fraideekin broman ere ibiltzen ziren. Fraideak baserriz baserri ere ibiltzen ziren, eta frontoian ere bai pilotan. Gerran, Altzon egondako fraide bat edo bi hil zituzten. Fraide etxean hiru bat fraide egoten ziren, "hermano" bat edo bi, eta mutil gazteren bat estudiatzen. Ez zuten dirurik izaten, baina goserik ere ez.

## **3. Fraideekin gau-eskolan (ALO-003/011)**

Gau-eskola debalde ematen zuten. Bizkaitarrak ziren gehienak, eta ezberdin hitz egiten zuten. Erdaraz hitz egiten erakusten ere saiatsen ziren fraideak, gau-eskolan. Haiek, ordea, sekulako hanka-sartzeak egiten zituzten. Fraideek borondatea besterik ez zuten eskatzen, eta trukean gailetak ematen zizkieten, gainera.

## **4. Fraideen etxean telefonoa (ALO-003/015)**

Telefonoa fraideek edukitzen zuten. Tabernan ere izan zen, gerora. Behar zuenak erabil zezakeen fraide etxeko telefonoa. Medikuari ala albaitariari deitzeko, edo bestelako estutasun batean.

## **5. Fraideei zuka eta apaizei berorika (ALO-003/017)**

Fraideak gurutzatuz gero, ez zen apaiza gurutzatutakoan izaten zen beldurrik izaten. Apaizari diosala ez egiteagatik, berriz, ezkutatu egiten zen. Apaiza erretore-etxean bizi izaten zen, normalean, neskameren batekin.

## **6. Eskolan gutxi ikasi eta gau-eskolan ikasitako apurra berritu (ALO-003/019)**

Txikitako kontuak. Etxeko lanak, eskola... Eskolari garrantzi gutxiago ematen zitzaion, orain baino. Gau-eskolan berritzen zuten eskolan ikasia.

## **7. Txikitako jolasak (ALO-003/021)**

Txikitako jolasak. Harrapaketan, "auzoka", elizako paretan pilotan... Eskuz egiten zituzten pilotak, baita "tiragomak" ere.

## **8. Neguan txori eta txori-habi bila (ALO-003/023)**

"Txoritan" aritzen ziren. Txori bila, habi bila... Okilak inurri zaporea omen zuen.

## **9. Ume bakoitzak bere habiak (ALO-003/025)**

Birigarroa, zozoa, okila... Txori bakoitzak bere habia izaten du, eta baita bere gustuko tokiak ere. Haurrak habi bila ibiltzen ziren, eta ez zioten elkarri esaten habia non ikusi zuten.

## **10. Zapelatz-kumeen truke dirua (ALO-003/027)**

Belea, zapelatza, gabiraia... Txori preziatuak izaten ziren. Ehiztariei zapelatza eramanez gero, dirua ere ematen zuten.



### **11. Habiak harrapatutakoan, batzuetan, kumeak etxera (ALO-003/029)**

Txori-habi bila ibiltzearen arrazoia, harrapatu izanaren harrotasuna bera zen. Batzuetan kumeak etxera ekartzen zituzten, baina hil egiten ziren gehienetan. Kukuak arrautzak txantxangorriaren habian.

### **12. Txori bakoitzak bere habia (ALO-003/031)**

Txori txikien habiak ere harrapatzen zituzten. Pinpina eta "kaxkabeltxa". Hontza ere bai. Habiak materialagatik eta tokiagatik bereizten zituzten gehienbat. Kukuaren esaera ere aipatzen du.

### **13. Etxera ura ekarri zutenekoa (ALO-003/035)**

Etxean ez uten urik, eta garia jo ondoren askan garbitu ohi zen. Berak ekarri zuen lehen fregadera etxera, gaztetan, eta sozio batzuen artean ura ekarri zuten. Lehenago urik ezak zituen arazoak ere aipatu ditu.

### **14. Etxeko argindar ahula (ALO-003/037)**

Argindar ahula izaten zuten etxean. Kableen egoera ere ez zen beti onena izaten, eta istripuak ere izaten ziren.

### **15. Altzorako errepideak auzolanean egin ziren (ALO-003/039)**

Bide txarrak ziren lehen Altzon. Herritarrek eman zuten dirua errepideak egiteko, eta auzolanean egin ziren. Horrek asko hobetu zuen herriko garraioa.

### **16. Altzo inguruko ijitoak (ALO-003/040)**

Garai haietako lapurreta txikiak, eta eskaleak. Ijito asko izaten omen zen inguruetan.

### **17. Behi aurrean belaunikatuta (ALO-003/042)**

Pasadizoa. Bere lehengusu bati, apaiza elizakoekin pasa zenean ez belaunikatzeagatik, amak errieta egin omen zion. Ondorioz, hurrena zintzarri hotsa entzundakoan belaunikatu egin zen, eta hara non azaldu zen zintzarridun behi bat baserritarra atzetik zuela.

### **18. Haizete handia izan zenekoa (ALO-004/005)**

Gau batean haizeak trena bota zuen Zumaian. Haizete hura gogoan du Inaxiok, eta aldi hartan zer komeria pasa zituen gogoan du.

### **19. Anaia 'Rusoa' (ALO-004/008)**

Anaiari&nbsp;Rusoa deitzen zioten; ezizena zergatik jarri zioten azaltzen du Inaxiok.

### **20. Errepublika aldarrikatu zenekoa (ALO-004/010)**

Errepublika hasi zenean, 11 urte zituen Inaxiok: eskolatako gurutzeak kendu egin zituzten orduan. Tolosatik neska-mutilak kantari etorri ziren Errepublika eta askatasuna goraipatuz.

## **21. Gerra zer zen ez zekitenekoa (ALO-004/021)**

Gerra hasi zela esan zietenean, gerraz entzun zituztenak Mussolinik eta Hitlerrek egindako kontuak ziren. Gerrari buruz eman zioten azalpena aipatzen du. Garai hartan, Inaxiori ez zitzaion buruan sartzen gizonek gizonak hil zitzaketenik.

## **22. Jakinduriaren iturri amaigabea (ALO-004/026)**

Irakurtzen hasi zenekoa gogoan du: maistrak gramatika irakatsi zien, eta horren ostean Inaxiok dena zekiela uste zuen. Orain uste du, ordea, jakinduria ez dela sekula bukatzen. Argiaren abiaduraren gainean egiten du hausnarketa.

## **23. "Villafranca del Penedés" pasahitza (ALO-004/033)**

Gerra garaian, Ollaunen zeuden gorriei janaria eramatea tokatu zitzaion Inaxiori. Haiengana inguratzeko, pasahitza "Villafranca del Penedés" zen. Behin hegazkina pasa zen haien gainetik; errekiatutako materiala zeukaten han. Behin perretxiko bila zebilela, tirokatu egin zuten, baina ez zioten eman.

## **24. Gerra tristea da (ALO-004/034)**

Gerra garaian, Alegian gizon bat fusilatu zuten. Gerra tristea dela esaten du, gerrari buruzko hausnarketak adierazten ditu.

## **25. Gerrako paradoxak eta basakeriak (ALO-004/036)**

Beraiek Beasaingo tiro-hotsak entzuten zituzten. Beasaingo Guardia Zibilen kapitainari buruz hitz egiten du: karlista amorratua izan arren, Errepublikako gobernuaren alde egin zuen; etsaiek, ordea, harrapatu egin zuten eta hil aurretik torturatu egin zuten.

## **26. Gerrako gizagabetasuna (ALO-004/037)**

Nafarrak Beasainen sartu zirenean, ikaragarriak egin zituzten jendearen aurka: semeari eginarazi zioten aita lurperatzeko zuloa; bere bistan hil zuten aita.

## **27. Bataioak eta komunioak nola ospatzen zituzten (ALO-005/002)**

Altzo Azpin baserri gutxi ziren, herrian, berriz, gehiago. Eliza bertan zuten eta jaio berritan bataiatzen zituzten. Jaiotako umearen izena aukeratzeko egutegiari erreparatzen zioten. Elizan sartu aurretik apaizak umeari atarian errezoak egiten zizkion. Ondoren ez zen bazkaria izaten. Jantzi ere oso normal egiten ziren, ez gaur bezala. Komunioan ere soineko normal bat jantzen zuten. Komunioa Altzoko herrian egin zuten.

## **28. Elizan sartzea egin aurretik ama etxean egon behar (ALO-005/003)**

Umea jaio ondoren, elizan sartzea egin behar izaten zen. Horren aurretik emakumeak ez ziren etxetik ateratzen.

## **29. "Bartoliloa"ren ohitura Abaltzisketan (ALO-005/004)**

Abaltzisketan umea jaiotzen zenean emakumeak elkartzeko ohitura izaten zen; "Bartoliloa" deitzen zioten (beste toki batzuetan "atsolorra").

### **30. Fraisorotik ekarritako anaiordea zuten (ALO-005/005)**

Valeriana sei senidetan laugarrena zen; seigarrena anaiordekoa zen, Fraisorotik ekarritakoa. Anaiordekoak ez zituzten leku guztietan ongi tratatzen.

### **31. Tolosako 'Cielo Grande'n neskame bezala (ALO-005/006)**

Eskolara zazpi urte zituela hasi zen eta hamabi urte zituen arte ibili zen. Ondoren Tolosako 'Cielo Grande' jatetxera joan zen zerbitzatzera. Ez da sekula damutu, asko ikusi zuen-eta. Zazpi neskame izaten ziren bertan. Bertan asko maite izan zuten. Hasieran ez zuen soldatarik, baina arropak ematen zizkioten. Etxe hartako umeak nola zaintzen zituen kontatzen du.

### **32. Gaixotu egin zen zaintzen zituen umeak kutxatuta (ALO-005/007)**

Tolosako 'Cielo Grande' jatetxean neskame zegoela, gaixotu eta nola zaindu zuten gogoan du. Bertakoak maite ditu oraindik.

### **33. Neskame zegoela urte bat pasa zuen etxera itzuli gabe (ALO-005/008)**

Arratsaldean umeak eskolatik itzultzean lanean jarraitzen zuen. Lana gustura egiten zuen. Urte bat pasa zuen bere etxera joan gabe. Noizean behin ama bisitan joaten zitzaion. Amak abarketak ferian erosi zizkion igandetan erabiltzeko.

### **34. Lehen urteetan ez zuen soldatarik izaten (ALO-005/009)**

Neskame zegoela etxeko andreak opariak egiten zizkion. Dirua eman zion batean aitari ilusio handiz eman zion. Beranduago soldata jarri zioten. Mutil-laguna izaterakoan, zuenean Altzora itzuli zen.

### **35. Gerra hasierako oroitzapenak; osaba karlistaren bila etorri ziren (ALO-005/011)**

11 urte zituela, gerra hasi zen. Beasain aldetik gerra zetorrela esaten zuten eta jendea etxeetatik alde egiten hasi zen. Osaba karlista baten umeak etxean zituzten eta haren bila nola etorri ziren gogoan du. Gaez izebak eta umeek Nafarroara ihes egin behar izan zuten.

### **36. Bonbak botatzen zituztenean nola ezkutatzen ziren (ALO-005/013)**

Karlistak Altzon sartzerako, gorriek alde egin zuten. Etxetik ez ateratzeko esaten zieten. Aita soldaduei janaria eramatera joan zen batean gertatutakoa gogoan du. Bonbak botatzen zituztenean, Altzoko elizan edo etxeko ukuiluan ezkutatzen ziren.

### **37. Tiroak, soldaduak eta hildakoak gerra garaian (ALO-005/014)**

Gerra garaian, Aldabatxikitik tiroak botatzen zituzten Altzo aldera. Nazionalistak eta karlistak borrokan ibiltzen ziren. Alegian soldaduak deskantsatzen egon zirela gogoratzen du. Tolosako asko hil zituzten gerra garaian. Beldurra pasa zuten.

### **38. Gerra garaia Tolosan (ALO-005/015)**

Neskame zegoela, Tolosako geltokian jendea trenez nola itzultzen zen ikusi zuen. Tolosako Berdura plazan zakuak jartzen zituzten soldaduei aurre egiteko.

### **39. Gerra amaiera eta ondorengo miseria (ALO-005/016)**

Gerra bukatu zenean poza hartu zuten. Ondoren miseria iritsi zen. Denda guztiak hutsik zeuden, ezer ez zegoen. Etxean zituzten janariak herrira entregatu behar izaten zituzten.

### **40. Dantzasoka Altzoko festetan (ALO-006/002)**

Altzoko festak San Inaziotan izaten dira. Dantzan ibiltzen ziren. Dantzasoka nolakoa izaten zen kontatzen du. Oso ongi pasatzen zuten. Etxera mutilak atzetik korrika zituztela itzultzen ziren.

### **41. Festetan bazkaria familiakoekin (ALO-006/003)**

Festetan familiakoek bazkaria ospatzen zuten. Amak flan ederrak egiten zituen.

### **42. Oilasko jokoak eta oilaloka nola zaindu (ALO-006/004)**

Oilasko jokoak ikusi izan ditu. Oilarren borrokak ere bai. Oilaloka nola zaintzen zuten kontatzen du. Txitak jaio ondoren oilalokaren atzetik ibiltzen ziren.

### **43. Oiloak nola zaintzen zituzten; baserrian ez zuten arrautzik jaten (ALO-006/005)**

Etxean oilategia zeukaten. Oiloak iluntzean sartu egiten zituzten eta goizaldean kontatu egiten zituzten. Ondoren hiru Agur Maria erreztatzen zituzten oiloak ongi ibili zitezen. Arrautzak ez zituzten baserrian jaten, Tolosako ferian saltzen zituzten. Behin arrautza nola jan zuen gogoratzen du.

### **44. Txerria hil ondoren gatzetan gordetzen zuten (ALO-006/006)**

Txerria hiltzen zutenean urdaia frijituta jaten zuten. Egurrezko kutxan gatza emanda gordetzen zuten; ondoren zintzilikatu. Odolkiak ere egiten zituzten. Txerria etxeetan partitzen zuten. Partitze lan hori umeek egiten zuten eta lanaren truke beti zerbait lortzen zuten. Gantza gorde egiten zuten olio moduan erabiltzeko.

### **45. Babarrunak, sagarrak eta gaztainak; gaztainak nola bildu (ALO-006/007)**

Urte guztian babarrunak jaten zituzten. Sagarrak eta gaztainak ere bai, gehienetan danbolinean erreta. Gaztainak lurretik biltzen zituzten, aitak zuhaitzetik bota ondoren. Morkotsak matxardarekin biltzen zituzten. Gaztaina haiek aletu ondoren Tolosan saltzen zituzten.

### **46. Ijitoak Altzo inguruan (ALO-006/008)**

Ijitoek apaizari hilerrian lo egiteko baimena eskatu zioten. Pixkanaka gehiago etorri ziren eta ezin bota ibili ziren. Ijito famosoak ere bazeuden. Lapurreta egiten zutela esaten zuten. Ijito euskaldunak ziren.

#### **47. Altzoko hilerri ondoan bizi ziren ijitoak (ALO-006/009)**

Eskean jende asko ibiltzen zen. Etxeetako atea jo eta errezzatu egiten zuten. Ijito bat hil zenean meza ederra egin zutela gogoan du. Altzoko hilerri inguruan egoten ziren. Ijitoekin izandako pasadizoak.

#### **48. Igandetan oinez Tolosara (ALO-006/011)**

Igandetan bezperetara joaten ziren. Tolosara joatea gustatzen zitzaien, baina oinez joan behar izaten ziren, diru gutxi zuten-eta. Iluntzean etxera zintzo bueltatzen ziren.

#### **49. Trikitixarekiko zaletasuna txikitatik (ALO-031/003)**

Etxean eta herriko festetan trikitixa entzuten zuen txikitari eta harekiko zaletasuna sortu zitzaion. Aita txapelketa zalea zen.

#### **50. Soinua ikasteko baimena, kostata (ALO-031/004)**

Trikitixa jotzen plazetan gizonezkoak ibiltzen ziren. Amak ez zuen alaba trikitixa ikastera eramatea bideragarri ikusten. Aitak soinutxo bat ekarri zion eta harekin hasi zen pixkanaka. Eta orduan eman zioten ikastera joateko baimena.

#### **51. Soinua ikasten hasi zenekoa (ALO-031/005)**

Ez zen trikitixa ikasteko leku askorik egoten. Villabonan ikasi zuen Maixak. Hor neska gehiagorekin topo egin zuen. Bertsolaritzaren ereduari jarraitzeko joera zegoen: elkartea, txapelketak...

#### **52. Euskal Herriko txapelketan hamazazpi urterekin (ALO-031/006)**

Hamazazpi urterekin Euskal Herriko txapelketan parte hartu zuen Ixiarrekin (Oreja). Oso oroitzapen polita du. Finalean ez ziren ondo moldatu baina oso ezagun egin ziren.

#### **53. Milatik gora emanaldi Ixiarrekin batera (ALO-031/007)**

Erromeria asko egin zituzten, hamaika urtean mila eta bostehun emanaldi inguru. Gazteak ziren eta beti bai esaten zuten. Hamazazpi urterekin hasi zen bera, eta Ixiarrek hamalau zituen.

#### **54. Gizonezkoen artean neska gazteak desorduetan oholtzan (ALO-031/008)**

Gizonezkoena zen mundu batean, gazteak ziren, neskak, desorduan... Publikoan ere gizonezkoak izaten ziren desorduetakoak.

#### **55. Neska gazteak desorduetan ibiltzearen komentarioak (ALO-031/009)**

Bere amari komentarioak egiten zizkieten, ordu horietan nola uzten zioten ibiltzen alabari. Pasarte bat kontatzen du, komentario sexista baten ingurukoa.

#### **56. Kontzertuen ostean, ligatzeko aukera (ALO-031/010)**

Kontzertuetan dantzara gonbidatzen zituzten baina soinu-jolea bera izanda, ezin izaten zuten. Parrandan geratuta, ligatzen zuten tarteka. Pasarte alai bat kontatzen du, Lizartzan gertatutakoa.

### **57. Maurizia eta beste plazandre asko (ALO-031/013)**

Mauriziaz gain, emakume asko ibiliak ziren plazetan. Sarri babestuta ateratzen ziren, senarrarekin, anaiarekin, aitarekin... Mamen Baltzeta izan zen berak ikusi zuen lehenengo emakume panderojolea plazan.

### **58. Primi Erostarbe eta kalean jotzea debekatu zietenak (ALO-031/014)**

Primi Erostarbek irrintzi bereziak botatzen zituen eta ezaguna egin zen. Emakume batzuei debekatu egiten zieten soinua jotzea ere. Bere amatxik soinua jotzen zuen, etxean.

### **59. Aitak soinua etxean bakarrik jotzeko baimena eman zion neskarena (ALO-031/015)**

Argentinaren batek bere amaren istorioa kontatu zuen irratira deituta, Maixari egindako elkarrizketa entzundakoan. Aitak baimena eman zion ikasteko, baina bere gelan bakarrik joko zuela agindu zion. Euskal Herrian halako asko pasa zela dio.

### **60. Plazan hasi zenean, emakume trikitilari gutxi (ALO-031/016)**

Gurutze eta Ainhoa izan ziren berak txapelketan ezagututako lehen emakume bikotea. Umeen arteko txapelketetan gehiago izaten ziren. Miren eta Iturbide ere aipatzen ditu. Hasieran gizonetzkoen tonoa abesten zuten; gero aldatu zuten tinbrea eta tonua.

### **61. Emakume trikitilarietara exijitzen zaiena (ALO-031/018)**

Emakume trikitilarietara exijitzen zaiena kontatzen du.

### **62. Moda eta janzkera kontuak oholtzan (ALO-031/020)**

Oholtza gainean eroso egon nahi du. Berdin zaio besteek diotena orain. Lehenengo diskoko argazkia oso maskulinoa dela iruditzen zaio. Gaztetxoak zireneko moda aipatzen du.

### **63. Plazaz plaza ibili nahi, eta egin (ALO-031/022)**

Plazetara joan aurretik, txapelketako pare bat saiotan ibiliak ziren, besterik ez. Plazaz plaza ibili nahi zuten eta egin zuten.

### **64. Martxoaren 8an Donostian lehenengoz (ALO-031/024)**

Martxoaren 8 batean Donostian jo zutenekoa kontatzen du. Bikote lesbianak ikusi zituzten lehenengoz han.

### **65. Gatzagako emakumeen bazkarian (ALO-031/025)**

Gatzagako emakume bazkarian jotzen zuten urtero eta oso ondo pasatzen zuten.

### **66. Atsolorraren berri (ALO-031/026)**

Atsolorraren berri entsegu batean izan zuen. Ereiñotzun ohitura nola berreskuratu duten kontatzen du.

### **67. Egun osoko trikiti saioak, maratoiak (ALO-031/031)**

Denetariko saioak egin izan dituzte eta egun osokoak ere bai. Adibideak jartzen ditu. Maratoiak zirela dio eta konbibentzia handia izaten zutela bertsolariekin.

### **68. Gauzak oholtzara igotzeko eskatu eta laguntza ukatu zietenekoa (ALO-031/032)**

Taldekidereen bat edo teknikaria gizonetzkoa bada, gertatzen da norbait etorri eta berarengana zuzentzea, emakume musikariarengana beharrean. Pasarte bat kontaktzen du azaltzeko gauzak igotzeko indar fisikorik batzuetan ez zutela izaten eta laguntza eskatzen zutela, eta inoiz ukatu egin izan zirela.

### **69. Maixa eta Ixiarren kantarik ezagunenak (ALO-031/037)**

"Emakume jaio nintzen", "Bexamela eta pastela", "Iluntzean" eta gizonei abestutako kanta aipatzen ditu.

### **70. Emakume trikitilariak konpetentzia? Ez (ALO-031/039)**

Alaitz eta Maider eta Kristina eta Amaia hasi izana pozgarria izan zen. Beraien konpetentzia zirela entzun behar izan zuten sarri.

### **71. Txapelketak, lehiaren gaintik harremanak (ALO-031/041)**

Txapelketek sortutako lehia-giroari buruzkoak aipatzen ditu. Txapelketa harremanak egiteko izaten da gehien bat eta hortik taldeak sortzen dira.

### **72. Neomak taldekoekin harro (ALO-031/042)**

Neomak taldeko kideak sei urterekin hasi ziren berarekin ikasten. Kepa Junkerak deitu zienekoa gogoan du.

### **73. Plazatik ateratzea, lehentasunak aldatzen direnean (ALO-031/045)**

Azaltzen du emakumeak plazatik zergatik erretiratzen diren gizonetzkoak baino lehenago. Bere ustez lehentasun kontua da, norberak egiten duen aukeraketa.

### **74. Beti oso libre (ALO-031/048)**

Sentsazioa du beti oso libre izan dela.

### **75. "Amak" taldeaz (ALO-031/050)**

"Amak" taldearen sorrera kontaktzen du. Hogeitaz urtean plazetatik ia kanpora ibili ondoren, jaialdi baten ondoren hasi ziren saioak egiten. Elkarrekin barre eta hitz egin asko egiten dutela dio.

### **76. Emakume trikitilarien omenezko kantaz (ALO-031/051)**

Plazetan emakume gutxi ibiltzen zen lehenago, debekatu egiten zirelako. "Amak" taldearen kantu bati buruzkoak azaltzen ditu, haien ahotsak eta istorioak zabaltzeko helburuz egindako kantaz.

### **77. Emakume baseritarren omenezko kantaz (ALO-031/052)**

"Amak" taldeak baserriko emakumearen garrantzia erakutsi du kantu batean. Kar mele Jaiok egin zizkien hitzak.

### **78. Ines Osinaga, indar handikoa (ALO-031/054)**

Ines Osinaga lehenengoz ikusi zuenean, izugarria iruditu zitzaion. Indar handiko emakumea dela iruditzen zaio. Gazte askorentzat eredu izan da.

### **79. Soinu eta pandero irakasle (ALO-031/056)**

Hamasei-hamazazpi urterekin hasi zen eskolak ematen. Beti soinua jantzita ibiltzen dela dio. Klaseak ematen Villabonan hasi zen, ondoren Gasteizen hasi zen eta Arrasaten ere bai. Bergaran ere egon zen. Arrasaten, Zizurkilen, Altzon eta Alkizan ematen ditu klaseak.

### **80. Soinu txikia, geurea (ALO-031/057)**

Eliza trikitixaren oso kontra egon zen garai batean. Soinu txikia gurea dela dio, kanpotik etorri zen arren. Soinu handiari plaza asko kendu dio.

### **81. Trikitilariak, garaian garaira moldatzen beti (ALO-031/059)**

Garaian garaiko trikitilariak moldatzen asmatu dute. Beste kantu batzuen bertsioak trikitixara ekartzen asmatu zuten. Gaur ere egiten dela dio.

### **82. Musikaren panorama oso emea (ALO-031/061)**

Musikaren panorama oso emea dela iruditzen zaio.

### **83. Neska batzuek ez dute plazarako nahirik izaten (ALO-031/062)**

Bera beti oso lotsatia izan dela dio. Soinua ikasten duten neska denek ez dute behar edo nahirik izaten plazara ateratzeko, bautzek bai eta besteek ez.

### **84. Trikitia euskal musika da (ALO-031/064)**

Euskara bere bizitzeko modua dela dio. Soinu txikia eta panderoa euskal kulturaren zati handia direla dio. Trikitiak euskal musika etiketa izan dezan aldarrikatzen du.



**Ahotsak.eus**-eko edukiarekin sortutako dokumentu automatikoa.  
2024-03-28

**CC-by-sa | Ahotsak.eus**  
Badihardugu Euskara Elkartea  
Markeskua Jauregia, 20600 Eibar  
943121775 - ahotsak@ahotsak.com